

## NEPAL SE ESCRIBE CON D: DESOLACIÓN, DESTRUCCIÓN...



Katalunian negoen astebukaera batean, EITB-ko nire lankide eta lagun batek telefonoz deitu zidanean apirilak 25 an Nepalen egondako lurrikararen berri emateko eta bide batez Nepaleko adiskideren kontaktua eskatzeko. Momentu horretatik aurrera, eta zoritxarreko albiste gehiago jasotzen nituen bitartean, burutik ez zitzaidan joaten zerbait egiteko ideia, eta honela ezarri nuen DIARIO VASCO-ko hainbat erreportaietan eta Teledonostin botatutako ikus-entzunezko batean non ia hamarmila biktimei omenaldia egiten genien eta herrialdeak sufritutako aldaketa islatzen zen. Zuela urte t´erdi egon nintzen Nepalen eta buruan nituen imaginak eta prentsan agertzen zirenen artean alde handia zegoen.

2015 ko maiatzaren 12 an Nepal suntsitzen bukatu zuen lurrikara etorri zen berriro. Zerbait gehiago nahi nuen, behar nuen, ... eta "deialdia somatu nuen"...Kontxa pasealekutik nihoan oinez eta pentsatu nuen "eta Nepalera banoa?"...Nire ingurukoekin komentatu ondoren eta han laguntzeko nituen aukerak aztertuta, asteartean erabaki eta larunbatean hegaz egiten negoen. Bi aste bizi izan ziren, oso gogorak. Katmandú (Patán, Bhaktapur, Swayanbunath, Pasupathinath) bailaratik mugitzen joan nintzen ahal nuen moduan, hiriburua..., atsekabegarria, mingarria, suntsiketa...Gorkhan barneratu nintzen, lurrikararen epizentroa, eta bere herrixkarik suntsituenean...bertan, GKE batean arropa asko utzi nuen, leku desberdinetatik mugitu nintzen, hainbat bilera egin nituen SOS Himalayarekin, haiei eman nizkien eramandako medikamentuak, herrixketatik bidaiatzen ari nintzen, laguntza gehien non behar zuten jakiten saiatuz. Hetaudako umezurztegian egon nintzen umeentzat arropa eta gauzak utzita. Esperientzia gogorra baina aberasgarria. Oroipen zoragarriarekin bueltatu nintzen, nepaldarren indar handia, nahiz eta momentu gogorak bizitzen egon, dena ematen digute. Hautsitako Nepal baten adierazgarri da erakusketa hau.

JUAN MANUEL SOTILLOS

2015 ko azaroa